

# Euskal enpresek (ErP) produktuen ekodiseinuari buruzko Zuzentarauari aurrea hartzea

## SOSTENGUA ETA LAGUNTZAK



laguntzaileak:



SPRIrekin elkarlanean, lhobek zenbait sostengu eta laguntza jarri ditu euskal enpresen eskura, energiarekin lotutako produktuen (ErP) ekodiseinuari buruzko Zuzentzauren eraginpean dauden enpresen beharrei erantzuteko.



Erabil daitezkeen **sostenguak** eta **laguntzak**, enpresa bakoitzaren beharren arabera, honako hauek dira:

Informazioa eta orientazioa	Ekintzak bultzatzea	Kanpoko aintzatespena
1. Ihobeline, kontsultak telefono bidez egiteko zerbitzu	1. Enpresari eta teknologiari lotutako erabakiak hartzeko laguntza	1. Ingurumen bikaintasuneko kasu praktikoak euskal enpresetan
2. <a href="http://www.ihobe.net">www.ihobe.net</a> (Info ErP/Joeren txostena)	2. Ezagutza transferitzeko moduluak	2. Europako Ingurumen sariak
3. Gida teknikoak	3. Ekodiseinu ikasgela	3. <a href="http://www.productosostenible.net">www.productosostenible.net</a>
4. ErP Zuzentzauari buruzko informazio tailerrak		

## Ekodiseinu proiektuak (ErP) finantzatzeko laguntzak

1. Enpresei diru-laguntzak ingurumena zaintzeko inbertsioetarako: Ekoetiketak ezartzea, UNE 150301/ISO 14006 Ekodiseinu arauaren ziurtapena. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.
2. LEHIATU-EKIMENAK Programa: Enpresak (SPRI).
3. + INNOVA Aldatu Programa (SPRI).
4. GAITEK Programa (SPRI).



## Informazioa eta orientazioa

### » Ihobeline, telefono bidezko zerbitzua (900 15 08 64)

Ihobe-line telefono bidez ingurumen informazioa emateko zerbitzua da. Adituek ematen dute zerbitzua eta Ekodiseinuari buruzko ErP Zuzentarauaren inguruko edonolako zailantzari doan ematen diote erantzuna.

Besteak beste, honelako galderak luza daitezke Ihobeline zerbitzuan:

ErP produktuaren ekodiseinuari buruzko Zuzentarauak eragiten al dio nire produktuari?

Etorkizunean eragingo al dio? Noiz?

Zer egin behar dut edo egin beharko nuke prestatzen joateko eta aurrea hartzeko?

### » [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) (Info ErP/Joeren txostena)

Ekodiseinuaren eremuan, [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) webgunean, erabilgarri dago «Info ErP-Ekodiseinuari buruzko Zuzentarauaren inguruan enpresei zuzenduriko informazio zerbitzua» berariazko atala. Bertan, Zuzentarauari buruzko informazio eguneratu eta zabala aurki daiteke, baita legegintza prozesuari buruzkoa ere.

[www.productosostenible.net](http://www.productosostenible.net) webgunean, sektore elektriko-elektronikoko informazio baliotsua aurki daiteke (legedia, tresnak, aintzatespenak, produktuak...).

Joeren txostena Ekodiseinuari buruzko ErP Zuzentarauaren inguruko albisteak jasotzen dituen aldizkako txosten bat da. Albiste hauek, nagusiki, Europako Batzordetik datoz eta bertan jasotzen den informazio guztiari esker euskal enpresek etorkizunari aurrea hartu dezaiokete.

Joeren txosten hau [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) gunean eskura egongo da eta Ihobeline zerbitzuan eskatuz gero, enpresa guztiei bidaliko zaie aldizka.



## » Aplikaziorako gida teknikoak

### EuP/ErP Zuzentarauari buruz jakin beharreko guztia Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak: Elektrizitatea- Elektronika I eta II

EuP/ErP Zuzentarauari buruz jakin beharreko guztia argitalpenak zuzentarau honi buruz eskura dagoen informazio guztia jasotzen du. Argitalpen honek Excel-en oinarritutako tresna praktiko bat dakar, ErPren eraginpean dauden produktuen ekodiseinurako ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko.

Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak produktuaren diseinu prozesuetan ingurumenaren hobekuntza sartzeko tresna lagungarriak dira; bertan, sektore horretarako, ingurumena hobetzeko espezifikazio teknikoak jasotzen dira.

### Ekodiseinuko UNE 150301 araua garatzeko gida: 2003 (ISO 14006ren oinarria)

Gida honek UNE 150301 araua ezartzeko ildoak finkatzen ditu, ISO 14006tik gertu, eta kudeaketa sistema bat da, Ziurtagiriak ezartzen dituen betebeharrak dokumentalei edo gestio betebeharrei erantzun dezaiokena, hala nola adostasun adierazpena, adostasun ebaluazioa eta produktuari CE marka jartzea.

Argitalpen hauek osorik deskarga daitezke [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) webgunetik edo lhobeline zerbitzuan eskatu, paperean edo CD formatuan.

### ErP Informazio tailerrak: «ErP produktuen ekodiseinuari buruzko Zuzentarauaren inplikazioak Energiarekin lotutako Produktuak egiten dituzten euskal enpresentzat»

Bi orduko iraupena duten tailer hauen asmoa Zuzentarauari buruzko informazio nagusia enpresetara hurbiltzea da. Tailer hauen egutegi eguneratua [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) gunean egongo da. Tailerrak webgunean bertan edo lhobeline zerbitzuaren bidez eska daitezke.





## Ekintza bultzatzea

DOAKO EKIMENAK  
EKOERAGINKORTASUNA PROGRAMARI  
ATXIKITAKO ENPRESENTZAT

### » Ezagutzaren transferentzia

Trebakuntza ikastaro hauen helburua ingurumen tresna eta metodologia aurreratuenen aplikazio praktikoa erraztea da, ErP produktuaren ekodiseinuari buruzko Zuzentarauri aurrea hartzeko.

Ihobek ikasketa teorikoa eta aplikazio praktikoa konbinatzen duten modulu hezigarri berriak eskaintzen ditu; ikasitakoaren aplikazio praktikoa enpresan bertan egiten da, proiektu baten garapenaren bidez. Hori guztia parte-hartzaileen esperientzien elkartrukearekin indartuko da, aurrez aurreko saioetan. Baliatze proba eta proiektua bera onartu ondoren, Ihobek dagokion modulua gainditu izanaren ziurtagiria emango du.

Trebakuntza ildo honetan, honako hiru modulu hauek garatuko dira:

Modulua	Aurrez aurreko saioen (AAS) data
Energiarekin lotutako produktuaren ekodiseinurako ErP lege betebeharre aurrea hartzea	AAS1 2011/04/12 AAS2 2011/05/12
UNE 150301 ekodiseinu ziurtapen araua ezartzea. Etorkizuneko ISO 14006 arauaren beharrei nola erantzun	AAS1 2011/05/06 AAS2 2011/05/07 AAS3 2011/11/03
Elektrizitate-elektronika sektoreko ekodiseinua	AAS1 2011/10/06 AAS2 2011/10/07
Makina-erremintaren sektoreko ekodiseinua	AAS1 2011/11/03 AAS2 2011/11/04

**Iraupena:** hiru aste eta hilabete bitartekoa

Arduraldia	ikasketa	proiektua	saioak
Ezaguerarik gabeko ikasleak:	6-12 or.	15-20 or.	2
Ezaguera maila ertaina duten ikasleak:	5-8 or.	10-15 or.	2
Ezaguera maila aurreratua duten ikasleak:	2-4 or.	6-10 or.	2

Izen-ematea eta data eguneratuak [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) webgunean eskuragarri daude.

Ezagutzaren transferentzia egitetik ondorioztatzen diren proiektu Proposamenak Ihobek aztertu eta, egokia bada, bermatu ditzake, SPRIK kudeatutako LEHIATU, ALDATU eta GAITEK programetara aurkezteko.



## » Bilboko Ingenieritza Goi Eskola Teknikoko Ekodiseinu ikasgela

Zerbitzu hau ekodiseinuarekin erlazionatutako lehen ekimen bat garatu nahi duten Enpresei zuzendua dago; ekodiseinua beren produktu eta/edo zerbitzuetan eta ekodiseinuan adituak diren bekadunen laguntzarekin. Betiere, lan honek ikasgelako koordinatzaile diren aholkulari adituen baimena izango du.

Proiektuak sei hilabeteko iraupena du. Eskaerak aurkezteko epeak eta kostua [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) webgunean aurki daitezke.

Plaza mugatuak daude, ikasle kopuruaren arabera. Ihobeline zerbitzua erabiliz, ekodiseinu ikasgelaren bitartez proiektuak egiteko interesa azaltzeko aukera dago.

## » Enpresari eta teknologiari lotutako erabakiak hartzeko laguntza

DOAKO EKIMENAK  
EKOERAGINKORTASUNA  
PROGRAMARI ATXIKITAKO  
ENPRESENTZAT

Erabaki estrategiko baten arrakasta baldintza dezaketen eta, beraz, besteak beste, inbertsio berri, prozesu aldaketa edo produktu garapen baten arriskua murriztu dezaketen ingurumen alderdiei buruzko aholkua ematera bideratutako zerbitzua da.

Dohainik eta lau orduz, Ihebeko aholkulari aditu bat enpresaren eskura egongo da. Aholkularia enpresara joango da eta arazoei eta erronkei aurre egiteko erabaki egokienak hartzeko beharrezkoa den informazioa emango du. Laguntza hau Ihobeline (900 150 864) zerbitzuaren bidez edo [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) webgunean eska daiteke

Aholkularitza eskaera bat onartzeko baldintzak honakoak dira: irizpide estrategiko edo teknologiko aditu baten beharra izatea eta, erabakiak hartzeko, arazo/eskaeraren formulazio argi bat edukitzea, betiere Ihebek eskaintzen dituen gainerako informazio bideak agortu ondoren. Zerbitzu hau Ihebek duen aurrekontuaren eta gaiari dagokion aditu bat libre izatearen mende egongo da.

Zertarako eska daitezke laguntza hauek?

- Ingurumen eta teknologia aldetik produktua nola hobetu jakiteko.
- Ekodiseinuan proiektu teknologiko bat prestatzeko.
- Aplikagarri den erregelamenduak ezartzen dituen bigarren betekizunei nola erantzun jakiteko.

Ezagutzaren transferentzia egitetik ondorioztatzen diren proiektu proposamenak Ihebek aztertu eta, egokia bada, bermatu ditzake, SPRIK kudeatutako LEHIATU, ALDATU eta GAITEK programetara aurkezteko.



## kanpoko aintzatespena

### » [www.productosostenible.net](http://www.productosostenible.net)

productosostenible.net industria produktuak ingurumenarentzat hobekuntza izateko informazioa ematen duen ataria da eta produktu baten bizi-zikloan parte hartzen duten eragile guztiei zuzenduta dago. Webgunean bertan ezaguerata eta produktu berriak iradokitzeko aukera dago, hauek webgunean sartzeko.

### » Ingurumen Bikaintasuneko Kasu Praktikoak euskal enpresetan

Argitalpen honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek ingurumen hobekuntzaren arloan egindako aurrerapenak jasotzen dira, ingurumen arloan erreferentzia bat direnean, beren lana berritzailea delako eta transferitu daitezkelako. Kasu praktiko horiek lhotelarekin zerbitzuaren bidez eska daitezke eta, dagokionean, horretarako kontratatutako laguntza teknikoak ere jaso ahal izango da, bere edukia adostu ondoren.

Kasu praktiko hauek Ekoeraginkortasuna Programari Atxikitako enpresen esperientzientzat egingo dira.

Ekodiseinuko kasu praktikoaren adibideak honako lekuan aurki ditzakezu:  
<http://www.ihobe.net/Paginas/Ficha.aspx?IdMenu=af5e247d-ad95-4e41-a2e9-6eefda6c1ed8>



## Laguntzak eta Diru-laguntzak

### » Enpresei diru-laguntzak ingurumena zaintzeko inbertsioetarako

Ekoetiketak ezartzea eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren UNE 150301 (etorkizuneko ISO 14006) Ekodiseinu arauaren ziurtapena.

Diru-laguntzen agindu honek finantzaketa lerro bat irekitzen du ekodiseinu arloko proiektuentzat, hain zuzen ere UNE 150.301, etorkizuneko ISO 14006, Ekodiseinu Araua ezartzeko eta ekoetiketak ezartzeko (I edo III motakoak) ETEetan, baita inbertsio aurretiko azterketak egiteko ere. Diru-laguntza prozedura sinplifikatuaren bitartez bideratzen da eta aholkularitza-ingeniaritzarako eta/edo ziurtapen kostuetarako %50eko finantzaketa ezartzen da, gehienez 6.000 eurokoa.

2011ko udaberrirako beste deialdi bat zabalduko dela aurreikusten da. Honetaz, [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) webgunean informazio zabala eta eguneratua eskainiko da.



## » LEHIATU-EKIMENAK Programa: Enpresak (SPRI)

Helburua euskal enpresen lehiakortasunaren hobekuntza sustatzea da, elkarlanaren eta lankidetzaren sorrera erraztuz, enpresak mobilizatzeko asmoarekin, lehiakortasuna hobetzeko prozesuak hasi ditzaten, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan lehiakortasun hobekuntzarako ekimenak lagunduz eta Bitarteko Lehiakortasun Eragileen jardura mobilizatzailea sustatuz, sektore, enpresa nahiz lurralde eremuetan, beren eginkizuna euskal ekonomia dinamizatzea delako. ErP Zuzentarauari dagokionez, betiere enpresaren lehiakortasunari laguntzen bazaio, hainbat proiektu aurkeztu daitezke: UNE 150301/ISO 14006 ziurtapenak, ekoetiketak, bideragarritasun azterketak, lankidetzaren proiektuak, etab.

**Eskaerak egiteko epea:** 2011/01/31 - 2015/10/15

## » +INNOVA Aldatu (SPRI) Programa

Programa honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan berrikuntza bikainen proiektuak egitea eragin nahi da honako eremuetan: erakundearen estrategien birplanteamendua, merkatu berrikuntzak eta berrikuntza gaitasuna antolaketak eta garapena. Ekodiseinuari buruzko Zuzentarauari dagokionez, produkzio prozesuetan aldaketaren bat duten proiektuak, inbertsio aurretiko proiektuak edo merkatu berrietan ingurumen arloan kokatzea helburu duten proiektuak sar daitezke.

**Eskaerak egiteko epea:** 2011/01/27 - 2011/11/15

## » GAITEK (SPRI) Programa

Programa honen xedea enpresen lehiakortasuna hobetzea da I+G+B proiektuen bidez produktu berriak garatzeko. Programaren irizpideak betez gero, ekodiseinatutako produktu berriak garatzeko proiektuak sar daitezke, Ekodiseinuari buruzko ErP Zuzentarauari lotuak, ingurumen aldetik bere ezaugarriak erlatiboki hobetzen direnean.

**Eskaerak egiteko epea:** 2011/01/01 - 2011/06/02


**Informazio gehiago eta SPRIren zerbitzuen eta laguntzen eskaerak:**

<http://www.spri.es/aNS/web/es/ayudas/index.jsp>

Lerro horien bidez ekodiseinu-irizpideak txertatzeko laguntza enpresak proiektua Compite, Aldatu eta Gaitek programatara aurkeztu baino lehen egin ahal izango da.



Zure enpresak tresna edo zerbitzu hauetako baten beharra badu, deizazu I hobeline zerbitzura eta eskura ezazu behar duzun laguntza

 **ihobeline**  
**900 15 08 64**

Euskal Enpresarako Doako Ingurumen Argibide Zerbitzua  
Servicio de Información Ambiental Gratuito para la Empresa Vasca